

Irungo
euskarazko
hamabostekaria

Irunero

335

Urriak 15, 2018

- 2** Irun Atzo Irun Gaur
- 3** Berri laburrak
- 4-5** Zinebai
- 6** Ezkontza azoka
- 6** Bertsolaritza
- 8** Kirolak: Scooter
- 9** Kirolak: Ane Saseta
- 10** ACUBIREN kolaborazioa
- 11** Haurren leihoa / Denborapasak
- 12** Euskara Irunen Barrena / Gazteen lanak
- 13** Beti Gazte: Bidasoatik mundura
- 14** Gazte Informazioa
- 15** Agenda



Argazkia: Estudio Gover

Anaka kalea, 8 - IRUN 943 667780



CASER ANAKA

caser
residencial

GURE AITONA-AMONEN
ONGIZATEA HELBURU
Egonaldi iraunkorrak
eta aldi baterakoak

Zubieta, 121 - HONDARRIBIA 943 647169



CASER BETHARRAM

Patxi Gamborena Hernandorena



REF: G304

Futbol jokalaria. 1901 urtean jaio zen Irunen. 17 urte bete zituenean hasi zen futbolera jolasten, Real Union taldea sortu berri zen garaian. 1918 urtean jolastu zuen Irundik kanpo bere lehen partidua Gijonen eta bertan irabazi zuen kirolari bezala bere lehen soldata.

Bere nazioarteko lehen partidua Bilbon jokatu zuen 1921 urtean, Belgikako taldearen aurka. Beranduago, Parisen besoa lesionatu zuen eta, lesioaren ondorioz, besoa bizitza osorako anormaltasun bat izan zuen. Real Union taldea ia 20 urtez jokatu zuen, 1915 eta 1934 urteen artean. Hogei aldiz jokalaria internazional moduan aritu zen. Irungo hiriarekiko eta bertako taldearekiko sentitzen zuen maitasuna dela eta, Espanyol eta Bartzelona taldeen eskaintza garrantzitsuak baztertu zituen. Gerra Zibilaren ostean, hainbat taldeetako entrenatzailea izan zen. Futbolaren mundutik erretiratu ostean, Irungo Aduanan lan egin zuen. 1982 urtean hil zen Irunen.

Iturria: Agustin Morate.
Irun y sus gentes.

IRUNERO

Erredakzioa eta maketazioa:

Joseba Arozena
Ainara Berges

Publizitatea:

Amaia Terrazas
(amaia@irunero.eus)
Ion Otxoa
(ion@irunero.eus)

Diseinua eraberritzea:

Andrea Gomez Arocena

Argitaratzailea:

837 comunicación y publicidad S.L
www.837comunicacion.com

ISSN:

1134-0606

Lege gordailua: SS-230-94

Tel: 943 04 20 52

Wegunea: irunero.eus

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak)
diruz lagundua:



Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:



Ikuskizunetarako sarrerak eskuratzeko plataforma berria martxan jarri du Irungo Udalak

Irungo Udalak webgune berri bat martxan jarri du Amaia Kultur Zentroan egingo diren emanaldietarako sarrerak eskuratu ahal izateko. Webgune berriaren nobedadei esker, sarrerak mugikorrean deskargatu eta erabiltzaileek erositzeko sarrerak posta elektronikoa jasotzeko aukera izango dute. Era honetan, sarrerak mugikorrean erakutsiz gero, ez da beharrezkoa

izango txartelak inprimatzea.

Udazkeneko emanaldi gehienetarako sarrerak eskuragarri daude jada webgune berrian. Lehiaketa publiko bitartez erabaki zen Amaia Kultur Zentroko sarreraren gestiorako plataformaren aldaketa. Hemenetik aurrera, www.irun.org/entradas webgunearen eskuratu ahaliko dira Amaia

Kultur Zentroko zein beste udal eraikinetarako ordainpeko sarrerak. Webgune berria garatzen jarraitzeko asmoa dutela azaldu dute Kultura arlotik, etorkizunean webguneari berrikuntzak gehitu ahal izateko.

Berrikuntza honek internet bidezko salmentan izango du soilik eragina, beraz,

sarreraren salmentarako puntu fisikoak bere horretan mantenduko dira. Hemenetik aurrera sarrerak ezingo direla Kutxaren webgunearen bitartez erosi edo kutxazainetan inprimatu, lehen egiten zen moduan. Emanaldietara sartzeko ez da beharrezkoa izango sarrerak inprimaturik eramatea, artxibo digitalean txertaturiko QR kodea eskaneatuko baita.

Mintzalaguna eta Elkarrizketariak egitasmoak martxan izango dira ikasturte berrian



Euskara ikasten ari direnei euskara praktikatzeko aukera ematea da Mintzalaguna eta Elkarrizketariak egitasmoen helburu. Mintzalaguna egitasmoan parte hartzeko izen-emateak urriaren 8tik 16ra egin ziren eta Elkarrizketariak ekimenan parte hartzeko izen-emate epeak urriaren 22tik azaroaren 2ra egongo dira zabalik.

Euskara mailaren arabera bereizten dira bi Euskara Arloak bultzatutako bi ekimen hauek. Mintzalaguna egitasmoaren barnean 6. urratsetik gorako maila duten 4-5 pertsonako taldeetan euskara ikasten ari diren edo haien ezagutzengatik euskaldun oso kontsideratzen diren pertsonak elkartzen dira gauza ezberdinak egiteko: erosketak egin, paseatu, zerbait hartu, ... Egitasmo honen bitartez esparru ez formalean taldekideek euskara hitz egitea bultzatu nahi da.

Elkarrizketariak egitasmoan berriz, 5. urratsetik behar-rako maila duten pertsonak dinamizatzaileekin elkartzen dira hilean bi aldiz bi eratako jarduerak egiteko. Batetik, dinamizatzaileekin ikasgelan mintzapraktikak egiten dituzte euskaraz hitz egiteko lotsa galtzeko. Bestetik, tailerretan jolas korporatibo, dantza, musika edo irteeren bitartez euskara praktikatzeko aukera dute.



Olaizola

Immobiliaria agentzia

- ✓ Salmenta-Alokairuak
- ✓ Promozio berriak
- ✓ Aholkularitza

Beraketa kalea, 17 • 20302 IRUN • Tel: 943 626585
info@inmobiliariaolaizola.com
www.inmobiliariaolaizola.com

Zinebai: mugarik gabeko zinema



Edozeinek eduki beharko luke zinemaz euskaraz askatasun osoz gozatzeko aukera. Ikusmen arazoak dituzten pertsonak, ordea, filmaren isiltasun unetan gertatutakoa ulertzeko zailtasunak izan ohi dituzte. Oztopo horiek gainditzeko asmoz Raquel Hernandez Zinebai proiektua martxan jarri zuen Orbela Kultur Elkartearekin.

Nola sortu zen proiektua martxan jartzeko ideia?

Aspalditik buruan neukan ideia bat zen eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren META! programa ezagutu nuen hasi zen dena. Duela 10 urte baino gehiago Iruñeko Zinemaldian lanean ibili nintzenez eza gutu nuen gazteleraz "zine irigarria" izeneko atala. Euskaraz antzeko zerbitzurik ez dagoela ikusita, lanean hasia erabaki genuen.

Zein da proiektuaren helburua?

Oinarritzko helburua euskaraz zinema

irigarria posible egitea da. Alde batetik, itsuak diren edo ikusmen-arazoak dauzkaten pertsonentzat. Bestetik, Gipuzkoan zinemaren industriaren hazkundea bultzatzeko lanpostuak sortzea, audio-narratzailearen figuraren sorkuntzarekin.

Honelako proiektua martxan jarri duzuen lehenak izan zarete?

Bai, proiektuaren aitzindariak garela esan daiteke. Izan ere, horrela sortu zen ideia, hutsunea betetzeko asmoz.

Zein beste hizkuntzetan dago zinema

irigarria eskuragarri jada?

Gainontzeko hizkuntza gehienetan: erdaraz, frantsesez, suedieraz, alemanez, ...

Nola lortzen da zinearen egokitzapen hori?

Zinea irigarri egiteko audio-deskribapenak erabiltzen dira, isilune momentuetan gertatzen dena deskribatzeko. Narrazioak grabatu eta sistema bati esker sarera igotzen dira, entzungailuen bitartez beharrezkoa duten pertsonak narrazioa entzun dezaten.

Non erabili ahalgo dira audio-deskribapenak?

Edonon. Zineman pelikularen estreinaldiaren egunean edota etxean. Audio-deskribapenak ONCE elkartearen webgunean zintzilikatuko ditugu aplikazio baten bi-

tartez edozein pertsonak edonoiz eskura izan ditzan.

Proiektuarekin abiatzeko zenbat pelikula egokitzeko asmoa duzue?

Printzipioz hiru izango dira. Haurrentzat "Elcano, lehen mundu bira" pelikula egokituko dugu. Helduenak, berriz, erabakitzeko daude oraindik, baina, datorren urtean estreinatuko diren filmak izango direla argi daukagu.

Erraza da audio-deskribapenak sortzea eta grabatzea?

Gezurra dirudien arren, zorrotasun handia eskatzen duen prozesua da. Audioa grabatzeko denbora oso zehatza da eta deskribapenetan iritziak eta balorazioak sartzea ekidin behar da.

EGUNEKO MENUA · DASTATZEKO MENUA · KARTA · PINTXOAK ETA ERRAZIOAK



Meaka suloa, 9 - 20305 IRUN
Tel.: 943 841 964



FELIX MANSO IBARLA JATETXEA



info@felixmanso.com
www.felixmanso.com



Zeintzuk dira proiektuaren finantzabideak?

META! programaren barnean, aldundiak komunikazioa gauzatzeko plataforma eskaintzen digu. www.goteo.org webgunean "crowdfunding" bitartez elikatzen garen proiektu guztiek gure atala daukagu kolaboratzaileen diru ekarpenak jaso ahal izateko.

Zenbat diru behar duzue proiektua aurrera eramateko?

Diru bilketarako bi txanda daude. Lehena urriaren 27an amaitzen da eta muga gainditzeko ia 10.000 euro lortu behar ditugu. Muga hori gainditzeko %98a lortu dugu jada. Bigarren erronda batean kopuru optimoa lortzen saiatuko ginateke, hau da, 13.000 euro.

Jendeak ondo erantzun du diru-ekarpenen deialdira?

Erabat harriturik nago. Gainontzeko proiektuetan

50 edo 60 pertsona inguruk egin dituzte diru-ekarpenak eta guk 145 laguntzaile lortu ditugu. Jende askok egin du proiektua babesteko ahalegina eta eskertzekoa da.

Etorkizunean pelikula guztiak egokitzea posible izango dela uste duzu?

Bai, horrela izango dela pentsatzea gustatuko litzaidake. Etorkizunean Donostiako Zinemaldiko Zinemari saileko pelikula guztiak euskarazko audio-deskribapenekin eskaintzea izugarria izango litzateke, honela, zinema irisgarri atal berri bat sortuz.

Zergatik du proiektuaren garapenak hainbeste garrantzia?

Proiektuak ikusmen arazoren bat duten pertsonen zineaz independentzi osoz gozatzeko aukera eskainiko dielako.

“Oinarrizko helburua euskaraz zinema irisgarria posible egitea da”

“Jende askok egin du proiektua babesteko ahalegina eta eskertzekoa da”

Raquel Hernandez, Zinebai proiektuaren bultzatzailea



Fernando
Vergara
argazkilaria

Letxunborro, hiribidea 100,2º
20305 Irun
943 840 113 - 647 930 484

www.fotogover.com
www.fotogoverbodas.com
info@fotogover.com



Eztei-prestaketetarako data garrantzitsua

“Los muñecos de la tarta” ezkontza-azokaren III. edizioa antolatu zen urriaren 13tik 14era Ficoban

“Azpimarratzekoa da azokan parte hartzen duten erakusketarien %70a komertzio irundarrak direla”

Jesus Camarero, azokako antolatzaileetako bat

“Hiru urte daramatzagu azokan parte-hartzen, baina, ilusio berdinarekin prestatzen dugu beti”

Iñigo Lavado, sukaldaria

“Gure helburua, azokaren ostean, enpresa parte-hartzaileen agendak ezkontzez betetzea da”

Fernando Vergara, azokako antolatzaileetako bat



Urriaren 13tik 14ra “Los muñecos de la tarta” izeneko ezkontza-azoka antolatu zen Ficoban. Azokaren III. edizioa izan da aurtengoa eta Ficobako instalakuntzak bisitatu dituzten ezkongaiak ezkontzen munduarekin loturiko 15 sektore ezberdinetako produktu eta zerbitzuak gertutik ezagutzeko aukera izan dute.

Guztira, 24 izan ziren azokaren III. edizioan parte hartu zuten erakusketariak. Jesus Camarero, azokaren antolatzaileetako bat adierazi du, “azpimarratzekoa da azokan parte hartzen duten erakusketarien %70a komertzio irundarrak direla”. Iñigo Lavado sukaldariak azaldu du, “hiru urte daramatzagu azokan parte-hartzen, baina, ilusio berdinarekin prestatzen dugu beti”.

Aparkalekua eta azoka bisitatzeko sarrera dohainekoak izan dira. Aurreko edizioan bezala, Estudio Gover Fotografía, Married Novias, GB Eventos eta JECA Hombre en-

presak elkarlanean aritu dira ezkontza-azoka antolatzeko. Fernando Vergara antolatzaileetako bat azaldu zuen, “gure helburua, azokaren ostean, enpresa parte-hartzaileen agendak ezkontzez betetzea da”

Larunbat eta igandean goizeko 11:00etatik arratsaldeko 20:00etara, etenaldirik gabeko ordutegiarekin, zabalik egon ziren azokako ateak. Erakustokiez gain, bisitariak erakartzeko bi ikuskizun berezi antolatu ziren. Alde batetik, larunbat eta igandean, 12:30etan eta 18:00etan modelo erakustaldiak egin ziren. Hortaz gain, Papperino izozki-dendako Yon Gallardo izozkigileak nitrogeno likidoarekin show cooking ikuskizuna eskaini zuen. Ikusleek nitrogenozko lanbro izoztu artean sorturiko delicatessen mokaduak dastatzeko aukera izan zuten.

Ficobako pabilioien barnean kokaturiko postuetan ezkongaiak 15 sektore ezberdinetako produktu eta zerbitzuak ezagutzeko aukera izan dute. Hala nola, moda, bitxi,

edertasuna, oinetako, argazkilaritza, jatetxe, lore, DJ, bidai, autobus, ezkontza osteko proposamen, animazio ekitaldi, bideo, dantza eskola eta kaligrafia zerbitzuak ezagutu eta kontratatze aukera izan dute azokara hurbildu diren bisitariak.

Elkartasunerako tartea

Aurtengo azokaren nobedade nagusia Gurutze Gorriaren parte-hartze berezia izan da. Izan ere, elkarteak azokan stand bat izan duen lehen aldia izan da aurtengoa. Gurutze Gorriak gonbidatuentzako pentsaturiko opari proposamen berezia egin die erakusmahaira hurbilduriko ezkongaiak. Era honetan, opariak egiteko erabiltzen duten dirua elkartasunezko helburuak dauzkaten proiektuak laguntzeko baliatzen da.

Martxan da Txingudiko Bertso Eskolaren ikasturte berria



Jaizubiako Elkartean Ostegunetan biltzen diren bertso eskolako kideak

“Hasierako datuekin alderatuta, taldekide kopuruak gora egin du nabarmenki”

Aitor Errazkin, Txingudi Bertso Eskolako kidea

“Denon artean egiten dugu irakasle lana”

Abel Zabala Elizazu, Txingudiko Bertso Eskolako kidea

2002 urtearen bueltan sortu zen Txingudiko Bertso Eskola. 2007 urtearen inguruan Irungo Udalaren Euskara sailak bertso eskola kudeatzeko eskaintza egin zuen eta Bidasoa Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoa arduratzen da gaur egun eskolaren kudeaketaz.

Eskualdean bertsolaritzaren inguruan hitz egiterakoan garrantzitsua da Irunabar Elkarte Kulturala eta Bertso Eskola bereiztea. Izan ere, Irunabar ekitaldien antolaketaz arduratzen den bitartean, bertso eskolako kideekin elikatzen dira elkarteak antolaturiko saio asko.

Bi helburu nagusi dauzka Irunabar elkar-teak. Batetik, Irun eta inguruan bertsolaritza sustatzeko helburu orokorra eta, bestetik, Bertso eskola aurrera eramatea. Hortaz gain, bigarren mailako helburu

moduan, bertsolaritza lantzen den alde-tik, euskararen erabilera eta sutapenerako egiten den lana aipatzekoa da.

Era horretan, eskolaren agendan badira urtero errepikatzen diren ekitaldi finko batzuk: Euskal Jira, Mendeluko Jaiak edo Kabigorriko Bertso Gauak. Aitor Errazkin Vicente eta Abel Zabala Elizazu Txingudiko Bertso Eskolako kide izateaz gain, Irunabar, Irungo bertsoaren bilgune-kide eta eragile moduan definitzen dute haien burua. Kabigorriko Bertso Gau-egokionez, Aitor Errazkin azaldu du, “Kabigorriko Bertso Gauetan ez da saio eskasik egon, ez oholtza gainetik begiratu-tuta, ez ikusle goari dagokionez”.

Aitor Errazkin azaldu duenez, “hasierako datuekin alderatuta, taldekide kopuruak gora egin du nabarmenki”. Talde

bakarrarekin abiatu zen eskola bost talde ezberdinez osaturik dago egun. Hasi berrien bertso eskola, bat-bateko eskola eta bertsolaritzaren inguruko ekitaldiak antolatzen dituen bertso tailerra. Zabala eta Errazkin azaldukoaren arabera, eskualdean bertsolaritzarekin loturiko saio ugari antolatzen dira eta, ondorioz, bertsozaleak sakabanatuegiak daudela uste dute eta multzoa kohesionatzeko beharra ikusten dute. Hala ere, datu horren beste irakurketa bat eginez, eskualdean bertsolaritzak zale asko dauzkala ondorioztatu dute.

Ostegunetako Bertso Eskola

Ostegunetako Bertso Eskola Hondarribiko Jaizubiako elkartean biltzen da. Hasierako urteetan zailagoa zen arren, urteetako lanaren poderioz, bat-batean aritzeko gaitasuna bereganatu dute talde

honetako partaideek. Abel Zabalak presaturiko gaietatik abiatuz ostegun iluntzeak bertsotan ematen dituzte. Egoitz Zelaia eta Esteban Martiarena izan ziren iraganean taldeko irakasle. Egun, ordea, irakasle figura ofizialik gabe funtzionatzen dute eta Abel Zabalak azaldu duenez, “denon artean egiten dugu irakasle lana”.

Urte hauetan zehar, Oiartzungo Helduen Bertso Eskolarekin zein Nafarroa edo Iparaldeko eskolekin aritu dira elkarlanean. Inguruko bertso eskolekin izandako harremanen ondorioz, ostegunetako taldera herri eta probintzia ezberdinetako bertsolariak hurbildu ohi dira sarri, sagardo eta gazta mokaduen inguruan, bertsolaritzaren edertasunaz gozatzeko prest.

Neumáticos
txepetxa



**NEUMATIKOEN SALMENTAN LIDERRAK,
AUTO SALMENTAN ETA AUTOEN KONPONKETETAN LIDERRAK**

info@txepetxa.com • Letxunborro Hiribidea, 92, Irun • 943 63 13 99



Irun Scooter Fest jaialdia ospatu zen urriaren 13an

Ficobako Skateparkean maila altuko patinatzaileak elkartu ziren



Urriaren 13an, larunbatean, Irun Scooter Fest jaialdia ospatu zen Irungo Skateparkean. Goizeko 11:00etatik arratsaldeko 18:30ak arte trikimailu ikusgarriak ikusi ahal izan ziren Espainia eta Frantzia arteko mugatik hurbil kokaturiko pistan. Txapelketa kategoria ezberdinetan banatu zen eta maila altuko irristalariek parte hartu zuten bertan.

Oarsoaldeko M.K eta Live Style kirol klubek antolatu zuten Ficobako Skateparkeko jaialdia. Angel Portugal txapelketako antolatzaileetako batek azaldu zuen Irun inguruan scooterrarekiko geroz eta afizio handiagoa dagoela ikusita eta Irungo scooter irristalari talde batek eskatu erabaki zutela txapelketa antolatzea. "Gure klubek Irunen honelako txapelketa bat antolatzen zuten lehen aldian izan da", gaineratu zuen Angel Portugalek.

"Gure klubek Irunen honelako txapelketa bat antolatzen zuten lehen aldian izan da"

Angel Portugal, txapelketako antolatzaileetako bat

Txapelketak arrera ona izan zuen, izan ere, 80 irristalarik baino gehiagok eman zuten izena internet bidez. Gainera, maila altuko patinatzaileak bildu ziren Ficobako Skateparkean. Marti Samper, Espainiako txapelduna, Alex Gong, -14 kategorian Munduko Txapelketan 4. postua lortutakoa edo Alex Perez katalana, Munduko Txapelketan 2. postua lortu zuena, bes-

"Estatu osoko eta Frantziako irristalariak etorri dira lehiaketan parte hartzera"

teak beste. "Estatu osoko eta Frantziako irristalariak etorri dira lehiaketan parte hartzera", azaldu zuen Angel Portugal txapelketako antolatzaileak.

Adin-mugarik gabeko zaletasuna
Goizeko lehen orduko muntaketa-lanen ostean, 10:00etatik 11:00arte izan zen txapelketan izena emateko azken aukera,

nahiz eta aurretik izen-ematea internet bidez egiteko aukera egon zen. 11:00tan hasi zen -14 mailako txapelketa hasi zen, 40 segundotako 2 errondukin. Jarraian, 12:00etatik 13:30etara "Spineko erregea" mailan lehiatzen zirenen txanda izan zen 45 segundotako 2 errondukin.

Bazkaltzeko atsedenaldiaren ostean, 15:00etan 14 urtetik beherako finlean lehen errondako lehen 5 sailkatuak lehiatu ziren. 15:30etatik 18:30etara "Bowl erregea" txapelketako parte-hartzaileek 90 segundotako 2 erronda izan zituzten scooter izeneko patinetaren gainean haien trebetasuna erakusteko. Azkenik, 18:30etatik 19:00etara sari-banaketa egin zen. Txapelketa individuala izan bazen ere, patinatzaileek taldeak osatu behar izan zituzten "Team battle" saria lortu ahal izateko.



Ane Saseta, Bidasoa XXI klubeko lehendakaria:

“Bizitza osoa igerilekuan sarturik eman dudala esan daiteke”



Argazkia: Estudio Gover

Ane Saseta da Bidasoa XXI klubeko lehendakari berria. Duela 29 urte inguru sartu zen Bidasoa klubean igerilari moduan. Klubaren barnean kirolari eta entrenatzaile lanetan aritu ostean, historian lehen aldiz klubaren buruzagitza hartuko duen lehen emakumea izango da.

Nola iritsi zitzaizun klubaren presidentzia hartzeko proposamena?

Aurreko juntari oraindik bi urte falta zitzaizkion arren, dimisioa aurkeztea erabaki zuten. Aurreko juntan zeuden bi gurasok egin zidaten proposamena eta, asko pent-satu gabe, proposamena onartzea erabaki nuen.

“Igeriketaren munduan ibilitako norbaitek agintea hartzea garrantzitsua iruditzen zitzaidan”

Inoiz imajinatu zenuen presidentziara iristeko aukerarik zenuela?

Klubaren barnean urte asko eman ditugunez, noizbehinka burutik pasatzen zitzaidan ideia bat zen. Gurasoen borondatea eskertzekoa bada ere, igeriketaren munduan

ibilitako norbaitek agintea hartzea garrantzitsua iruditzen zitzaidan.

Etapari berri honetan inguruan konfiantzazko lan-talde bat edukitzea lagungarria da?

Bai, lehendakari kargua onartuz gero alboan izan nahi nituen pertsonak zeintzuk izan behar ziren argi neukan hasieratik. Junta berrian, igerilekuko jendea, gurasoak eta nire lagun-minak sarturik daude, beraz, oso erraza izan da dena.

Klubaren barnean bizitakoa urte guztiek esperientzia ematen dizutela uste duzu?

Bai, urte asko eman ditut klubaren barnean eta momentu on eta txarrak gertutik bizitzea tokatu zait. Bizitza osoa igerilekuan sarturik eman dudala esan daiteke.

Zein helburu dauzkazu buruan?

Lehen urte honetan gauzak poliki egin nahi ditugu, pixkanaka gauzak ikasi eta funtzionamendua ezagutzeko. Hortik aurrera, helburu finkoetan pentsatzen hasiko gara gauza politak egin ahal izateko.

Zeintzuk izango dira hasi berri den denboraldiko data garrantzitsuenak?

Waterpoloko talde guztiek denboraldi osoan zehar partiduak dauzkate eta, emaitza onak lortzeko, maila mantentzen saiatu behar dira partidu batetik bestera. Igeriketan, berriz, Espainiako Txapelketa eta Klubeko Kopa dira data garrantzitsuenak.

Igeriketa eta beste kirolen artean desberdintasun handiak ikusten dituzu?

Futbolak bereganatzen ditu beti aurrekontu eta publizitate guztia. Futbolarekin lorturiko edozer albiste denez, egunero ateratzen dira telebistan. Bitartean, igeriketan, garaipenak eta lorpenak ahazturik gelditzen dira askotan. Horregatik, hedabideek futbola ez diren kirolak babestea beharrezkoa ikusten dut. Izan ere, Irunen gauza politak lortzen ari dituzten klub asko dauzkagu, baina, arreta gutxi eskaintzen zaie.

“Hedabideek futbola ez diren kirolak babestea beharrezkoa ikusten dut”

Etorkizunean klubak emaitza hobeak lortu ditzakeela uste duzu?

Zaila iruditzen zait. Izan ere, Espainia mailan oso postu altuetan gaude eta, hori mantentzea zaila bada, hobetzea oraindik konplikatuagoa da. Irunen dauzkagun azpiegiturekin hobereena izatera iristea oso ziala dela uste dut. Hala ere, maila mantentzen saiatuko gara.

Maileguen alde iluna

ACUBI kontsumitzaile elkartearen kolaborazioa



INTEGRADA EN **EKA/OCUV**

Gizartean gastuei aurre egiteko beharra sortzen denean finantza-erakundeek haien produktuak finantzarioak saltzeko aukera ezin hobea aurkitzen dute. Tebistako iragarki erakargarrien bitartez era azkar eta errazean eskaintzen dituzte haien produktuak, tartean bete beharreko baldintza gutxi ipiniz. Kasu askotan, irtenbide itxaropentsuaren atzean, ordea, interes-tasa izugarriak ezkututzen dira, etorkizunean bezeroari buruhauste handiagoak eragingo dizkionak. Iruzurrak saihesteko, ACUBI kontsumitzaileen elkarteak eta Irungo Kontsumitzailearen Informaziorako Udal Bulegoak honelako egoeretan kontutan izan beharreko jarraibide batzuk proposatzen ditu:

1. Eskaera egin aurretik, ondo hausnartu eta kalkuluak egin. Beste maileguen ordaintzetan sarturik egonez gero, ahal den neurrian, mailegu berriek eskatzea ekiditea. Bestela, kantitate minimoa eskatzea, zorpetzea gehiegizkoa izan ez dadin.

2. Zein izango da kasu bakoitzean mailegu motarik egokiena? Baldintza eta gastu gutxien eskatzen dituen eta kasu konkretu bakoitzeko beharretara hobekien egokitzen dena.

3. Soilik telefono bidez gestionatzen diren maileguak saihestu. Eskaintako zerbitzuak eta baldintzak idatziz biltzea, kontratu bidez dena formalizatzea eta dokumentazioa zein publizitate iragarkiak gordetzea, erreklamazio bat jartzea beharrezkoa balitz.

4. Kontratatu nahi den produktuaren interes-tasak kontutan edukitzea. Kasu askotan, interes-tasa altuen ondorioz, gerta daiteke itzuli beharreko zenbatekoa hasieran eskatutakoa baino altuagoa izatea. Beste finantziario aukerak aztertu eta kredituren eskatzea erabakitzen bada, eskuragai dauden aukeren artean alderatu.

5. Gainera, maileguaren eskatzailearen aldetik ez ordaintzea gertatuz gero, ondorio larriak paira ditzake, adibidez, bahiturak, berandutzeak sorturiko interes altuak ordaindu behar izatea edo errekaruak.

6. Salneurrien liburuxka kontsultatu, etorkizunean sortu daitezkeen ordaindu beharreko komisio eta gastuak zeintzuk diren ezagutu eta zein kontzepturi dagozkion ezagutzeko. Kasu honetan ere garrantzitsua izango da informazioa idatziz jasotzea, kontratu batean akordioa biltzea eta badaezpada dokumentazio guztia gordetzea etorkizunean erreklamazioa jartzea beharrezkoa balitz.

7. Gogoratu bitartekari finantzario batekin kontratu bat harpidetuz gero, 14 egun naturaletako epea dagoela zigorrik gabe eta arrazoia azaldu gabe kontratua bertan behara uzteko.

8. Edozein zalantzaren aurrean, informazioa bilatu. Edozein arazo edo gehiegizkoa den klausula batekin topatuz gero, Irungo Kontsumitzailearen Informaziorako Udal Bulegora edo kontsumitzaileen elkartearen batekin harremanetan jarri salaketa bat ipintzeko.



El Pilar LH1

Arrate Tegetra - Eider Aramburu

HIZKI ZOPA

• Auzki itzuru 9 zuhaitz hau:

Gaztainondoa, Lizarra, Pinud, Paga, Haritxo, Izeia, Olibondoa, Udareondoa, Urkia.

G	A	Z	T	A	I	N	O	N	D	O	A
H	D	R	A	I	B	P	I	N	U	A	P
A	L	I	P	Y	D	A	R	M	J	O	Z
R	U	R	K	I	A	G	E	F	R	S	I
I	Z	E	I	A	X	O	R	A	S	M	H
T	U	M	L	I	Z	A	R	R	A	P	O
Z	U	D	A	R	E	O	N	D	O	A	N
A	O	L	I	B	O	N	D	O	A	K	U

*Ondo para!
El pilar, I izkitzen
LH2 maila*

Denborapasak

Zazpi abizen

I	P	A	R	R	A	G	I	R	R	E	U	A	A	Y	M	R
V	S	W	Q	A	W	O	O	E	A	Y	V	W	I	Z	T	U
F	Y	E	O	R	U	O	V	L	T	Y	Y	K	Y	M	K	B
O	E	Q	R	U	G	U	R	A	A	I	S	C	E	T	A	I
A	P	H	N	R	C	F	N	X	Y	Z	X	T	H	Y	T	O
G	E	Q	F	G	A	H	Z	N	O	R	A	N	G	V	N	W
I	O	Z	S	O	D	N	O	I	O	B	I	B	O	N	E	Z
O	J	U	E	R	N	M	O	G	N	Y	E	E	A	Y	E	I
B	E	N	G	O	E	T	X	E	A	Q	E	W	X	L	E	F
B	B	P	D	S	C	C	E	W	N	I	T	Y	Y	F	M	I
N	I	V	A	T	S	P	Y	D	G	P	H	Y	D	H	P	Y
E	B	E	E	I	N	S	T	U	A	A	A	F	T	T	X	U
C	Y	O	I	D	K	A	M	U	Q	I	F	F	T	E	E	A
Z	Y	X	K	I	A	E	J	K	F	I	I	A	R	X	Q	U
P	E	C	I	Ñ	A	E	O	Z	D	X	B	R	S	C	E	L
A	V	A	U	A	A	I	M	B	G	Q	L	H	W	X	W	C
M	J	D	A	E	I	Y	A	N	W	I	O	E	Y	N	C	H

				4			9	2
		9			3			
3			8	9		6		
	5	8	2		7		6	4
7			4		9			8
				5				
2	6	3			4		5	
					5	2		3
	8						4	6

**Iparragirre, Rubio, Olazabal, Gorostidi,
Peciña, Serrano, Bengoetxea**

Euskaraz, Irunen barrena

Zapaterua, intxiso berria

Eraman omentzuten engañatua sorgiñak mutill bat. Zapaterua zen. Eta dantzan naitua egiñ eta esan omentziyoten:

- Orain Barrabas'eri denak musu eman.

Eta mutill arek txanda etorri zenean zapatan puntzoyakiñ «zasta» egiñ ziyon musu eman be'rrian. Eta diaburak esantzuen:

- Intxixo berri orrek biote zorrotzak'ttik.

S.R.A. andereari jaso (1959-VIII-10). (El Bidasoa, 1959-X-3)

Iturria: Nikolas Alzola Gerediaga
Euskaraz, Irunen barrena

Irungo La Salle DBH1

Euskararen eguna ospatzeko bertsoak:

- | | |
|---|---|
| 1) Etxetik etorri naiz
irrikaz klasera
abesteko asmoaz
ondo pasatzera
traï lara lai
ondo pasatzera (BIS) | 4) Bertso, txiste, piropo
daukagu buruan
Gozatzeko asmoa
dugu guk gaurkoan
traï lara lai
dugu guk gaurkoan (BIS) |
| 2) Euskararen eguna
ospatzen eskolan
Bikain pasako dugu
guztion artean
traï lara lai
guztion artean (BIS) | 5) Hemen bukatzen dugu
eszenatokian
Egun zoragarria
pasatuz eskolan
traï lara lai
pasatuz eskolan(bis) |
| 3) Poza, alaitasuna
daude gure festan
Lehiaketa ospatuz
ta barrez klasean
traï lara lai
barrez klasean (BIS) | 6) Irabazi ta gero
denok ospatzera
lagunekin egonda
gero gure etxera
traï lara lai
gero gure etxera (BIS)
Irungo La Salle
1.D-ko ikasleak
Doinua: ama begira zazu |



bideosare

Bideoak zure erara!



- > Ikus-entzunezko proiektuak
- > Bideo grabaketa eta edizioa
- > Multimedia

bideosare.com



Bidasoatik Mundura sasoi erronkak lanean jarraituko du 2018-2019 ikasturtean



Bidasoatik Mundura 2018-2019 ikasturteko erronka berriei aurre egiteko lanean hasi da jada. Jolas eta jarduera bitartez gazteen egunerokotasunean ohitura osasungarriak txertatzeko helburua du programa honek. Era honetan, gaztek ohitura osasungarriak bereganatzen dituzte, ondo pasa eta kirol berriak praktikatzeko dituzten bitartean.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. eta 2. mailako ikasleei zuzenduriko sasoi erronka da Bidasoatik Mundura eta bi helburu nagusi lortzeko lan egiten du. Alde batetik, gaztek elikadura osasungarria mantendu dezaten jarraibideak ematea eta, bestetik, gorputza mugimenduan jartzeko ariketa fisikoak sustatzea. Pablo Murias kirol teknikariak azaldu duenez, "Euskadi mailan horrelako gai bati heltzeko sustatu den proiektu bakarra da".

"Euskadi mailan horrelako gai bati heltzeko sustatu den proiektu bakarra da"

"Helburu berdinen alde lan egiteko administrazio eta entitate ezberdinak elkartzea lortu dugu"

Pablo Murias, kirol teknikaria

Eskola-ordutegiaren barnean garatzen diren jarduerak proposatzen ditu sasoi erronka honek. Hasi berri den ikasturtean, kirol praktikatzeko ez duten ikasleei arreta berezia eskainiko zaie. Aurtan, nobedade moduan, ikastetxeek zentroetan egingo diren ekintzak eta jarduerak motak aukeratzeko askatasun osoa izango dute, beti ere,



aukeratutako ekintzak ohitura osasungarriak errespetatzen baditu. Era honetan, Bidasoatik Mundura programako arduradunak ikastetxe guztietako ordezkariekin bilduko dira urriaren 25ean, ikasturte berriaren heziketa zentuen parte-hartzea zein izango den zehazteko.

"Helburu berdinen alde lan egiteko administrazio eta entitate ezberdinak elkartzea lortu dugu", azaldu du Pablo Murias kirol teknikariak. Izan ere, hauexek dira Bidasoatik Mundura tokiko sarean parte-hartzen duten eragileak: Gipuzkoako Osasun Publikoa, Bidasoko ESIA (Erakunde Sanitario Integratua - Osakidetza), Irungo Berritzegune (Hezkuntza Saila), Irun eta Hondarribiko Udalak kirol zerbitzua eta Kronikune.

Parte-hartzea hobetzeko bultzada

Nerabeen artean ohitura osasungarriak sustatzeko be-

harra identifikatu ostean, 2014 urtean Bidasoan sorturiko tokiko saretik abiatutako proiektua da Bidasoatik Mundura. Duela bi urte jarri zen martxan proiektua lehen aldiz. Lehen edizio hartan 800 ikasle inguru parte hartu zuten eta sari bat irabazteko aukera izan zuten parte-hartzaileek.

Hasierako arrakastaren ostean, parte-hartzaileen kopurua nabarmenki murriztu zen. Izan ere, hiru izan ziren joan den urteko edizioan parte hartu zuten zentro irundarrak: Eguzkitza, Hirubide eta La Salle. "Orain arte ikasle eta irakasleen aldetik jasotako balorazioak positiboak izan dira", azaldu du Pablo Murias kirol teknikariak. Ikasturte berriari begira, ikasle inaktiboek zuzenduriko ekintzen programa irekiaren bitartez, parte-hartze datuak hobetu nahi dira.



- Aurrez aurre: Irungo CBA liburutegi berrian
- Telefonoz: 943 50 54 44 / 943 50 54 40
- Posta elektronikoz: igazte@irun.org
- Web gunean: www.irun.org/igazte
- WhatsApp bidez: 607 771 173

Kamiseta bat diseinatu eta Europarako bidai bat irabazteko aukera izango duzu

Time To Move kanpainarentzako kamiseta bat diseinatu gero, bidaiekin loturiko sari ezberdinak irabazteko aukera izango duzu. Time To Move European Gazten Nazioarteko Mugikortasuna sustatzeko helburuarekin lan egiten eta ekintza ezberdinak antolatzen dituen kanpaina bat da. Proiektuaren mamia era interesgarri, original eta inspiratzailean irudikatzen dituzten diseinuak izango dira irabazleak.

Baldintzak: 13-30 urte bitarteko gazteek izango dute lehiaketan parte hartzeko aukera. Bi kategoria ezberdinetan banatuko dira parte hartzaileak: 13-19 urte bitarteko gazteak eta 20-30 urte artekoak.

Sariak:

- 1. Saria (kategoria bakoitzeko bat): Interrail Global Pass bat, hau da, Interrail txartela.
- Gehien nabarmentzen diren 5 diseinuentzako saria: 5 hilabeteetako harpidetza Spotify Premium-en.
- Bozkaketa publikoaren saria: Fjällräven motxila.


Epea: 2018ko urriaren 31ra arte aurkeztu ahalko dira lehiaketan parte hartzeko diseinuak.

“Familia ta lagun denok bidelagun”

4 urtetik 11 urte bitarteko haurrentzat eta haien familientzat sortutako programa bat da. Helburua, aisialdiaz familiarrean gozatzeko gune bat sortzea da, sormena lantzeko jardura dibertigarri eta hezigarrien bitartez (ur kirolak, yoga, familychef, paseoak bizikletan). Urriaren 20an, larunbatean, bizikleta txangoa eta bide heziketa ikastaroan parte-hartzeko aukera egongo da.

Ordutegia: 10:30etatik 12:30etara. Topagunea: Txikilab Palmera Montero (J.A. Loidi Bizkarrondo 12) Izen-ematea: Urriaren 10etik 15era. Kontutan hartzekoa: Derrigorrezkoa da kaskoa eramatea.

Antolatzailea: GazteARTEan Irungo Udaleko Gazteria Zerbitzua.



Martindozenea gazte-lekuaren programazioa urriko bigarren hamabostaldirako

Martindozenea gazte-lekuan ekintza ugari antolatu dira urriko hilabeteko azken egunei begira. Izua eta Halloween-ekin loturiko ekintzak nagusi izango dira hamabostaldi honetan.

- Urriak 18, osteguna: DIY bloc tailerra.
- Urriak 19, ostirala: Asexora-T tailerra.
- Urriak 20, larunbata: Futbolin txapelketa.
- Urriak 23, asteartea: Magic karten ikastaroa.
- Urriak 26, ostirala: Makillaje tailerra eta kontzertua.
- Urriak 27, larunbata: Beldur pasabidea Ficoban. Aurretik izen-ematea beharrezkoa da.
- Urriak 31, asteazkena: “Izuaren gela”.

urtzi goibergana

INMOBILIARIA

Home Staging zer den entzun duzu? Pentsatu etxe batean sartu eta egin berria den kafearen usaina usaintzen duzula eta dekorazio aparta ikusten duzula. Mairidireak dauzkan ohe bat dago bertan etzatera gonbidatzen zaituena eta guztiz hornitutako mahai bat non bertan eseri eta janariaz disfrutatzea gonbidatzen zaituena.

Orain imajinatu etxe berean sartu eta hezetan usaina dagoela, ohea maindirerik gabe dagoela, sukaldea hutsik eta egongela hotz.

Bigarren kasuan, hor bizitzen imajinatzeke esfortzu handia egin beharko zenuke. Lehenengo kasuan, ordea, atetik sartu zaren momentuan hor bizi zaitezkeela ikusi duzu.

Hori da Home Staging, zure etxebizitzaren aurkezpen hobereana egitea.

Ikusi itzazu egin ditugun adibide batzuk:



661 875 785

www.inmobiliariaurtzigoigana.com/eu/

Alokatua / Salmenta / Eraginkortasun Energetikoaren Zuzlaginak / Arkitektura zerbitzuak / Home Staging zerbitzuak (etxebizitzaren alantza) Zure etxebizitza elertzen badiguzu, Eraginkortasun Energetikoaren Zuzlagin eta Home Staging zerbitzuak dorenin eduki ditzu (kontsumatu baldintzeki)

Irailak

18

“GO!AZEN 5.0” telesailaren aurre-estreinaldia

Zer: EITBko “GO!AZEN 5.0” telesailaren denboraldi berriaren aurre-estreinaldia.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 19:00etan.

Hizkuntza: Euskaraz.

Iraupena: 60 minutu.

20

“Irun Zuzenean” jaialdia

Zer: Bertako talde zein talde ezagunen musika emanaldiak eta egun osoko jarduerak.

Non: Urdanibia plazan eta Ospitale Zaharreko terrazan kokaturiko 3 eszenatokietan.

Ordutegia: 12:00etatik aurrera.

Sarrera: Doan.

21

Itsas hegaziak ikusteko irteera

Zer: Txingudi Ekoetxeak antolatutako Txingudi Badiatik itsas hegaziak ikusteko itsasontzi irteera.

Irteera puntua: Hondarribiko Kirol Portuan, Europa pasealekuan.

Ordutegia: 10:00etatik 12:00etara.

Sarreraren salmenta: 943619389 telefonora deituz edo info.txingudi@ekoetxea.eus helbide elektronikora idatziz.

Prezioa: 5 euro.



Denborapasen emaitzak

J	P	A	R	R	A	G	I	R	R	E	U	A	A	Y	M	R
V	S	W	G	A	W	D	O	E	A	Y	V	W	I	Z	T	U
F	Y	E	Q	R	U	D	V	L	T	Y	Y	K	Y	M	K	B
D	E	Q	R	U	G	U	R	A	A	I	S	C	E	T	A	I
A	P	H	N	R	C	F	N	K	Y	Z	X	T	H	Y	T	Q
G	E	Q	F	O	A	H	Z	N	O	R	A	N	G	V	N	W
I	O	Z	S	O	D	N	O	I	O	B	I	B	O	N	E	Z
O	J	U	E	R	N	M	O	G	N	Y	E	E	A	Y	E	I
B	E	N	G	O	E	T	X	E	A	G	E	W	X	L	E	F
B	B	P	D	S	C	C	E	W	N	I	T	Y	Y	F	M	I
N	I	V	A	T	S	P	Y	D	G	P	H	Y	D	H	P	Y
E	B	E	E	I	N	S	T	U	A	A	A	F	T	T	K	U
C	Y	O	I	D	K	A	M	U	Q	I	F	F	T	E	E	A
Z	Y	X	K	I	A	E	J	X	F	I	A	R	X	Q	U	
P	E	C	I	N	A	E	O	Z	D	X	B	R	S	C	E	L
A	V	A	U	A	A	I	M	B	G	Q	L	H	W	X	W	
M	J	D	A	E	I	Y	A	N	W	I	O	E	Y	N	C	H

0	7	1	5	4	0	3	9	2
6	2	0	7	1	3	4	8	5
3	4	8	8	0	2	6	1	7
8	5	8	2	3	7	1	8	4
7	1	2	4	8	9	5	3	8
4	3	6	1	5	8	7	2	9
2	6	3	0	7	4	8	5	1
1	9	4	6	8	5	2	7	3
5	8	7	3	2	1	9	4	6

26

“Zure Smartphone-a prest izan” hitzaldia

Zer: Erraminten erabilera egokia egiten ikasi gure gailu mugikorren kudeaketa zainketa egokia egiteko.

Non: CBA Udal Liburutegiko KZ gunean.

Ordutegia: 16:00etan.

Izen-ematea: CBA Udal Liburutegiko KZ gunean edo 943023695 telefonora deituz.

Prezioa: Doan.

Hizkuntza: Erdaraz.

27

Beldur pasabidea

Zer: 30 alktore amateur izu eta suspenseko pertsonaiak interpretatzen ikusteko aukera.

Non: Ficoban.

Ordua: 18:00etatik 20:00etara.

Sarreraren salmenta: Sarrerak salgai jarriko dira urriaren 24, 25 eta 26ean Amaia KZ leihatilan 17:30etatik 17:30etara.

Prezioa: 3 euro.

27 eta 28an

“Turandot” zinema-opera

Zer: Turandot da Puccini-ren obrarik modernoena eta handizaleena ikusteko aukera.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 19:00etan.

Sarreraren salmenta: Internet bidez, Irungo Turismo Bulegoan eta Amaia KZko leihatilan.

Prezioa: Bazkide direnentzat 25 euro, bazkideak ez direnentzat 30 euro eta 30 urte bitarteko gazteek 5 euro.



20

ETXEBIZITZA

**LASTER
ERAIKIKO DIRA
AUKERA
EZIN HOBEA**



Irun erdi-erdian, anbulatorioaren eta Artaleku kiroldegiaren artean, Luis Mariano Plazaren ondoan.

3 LOGELAKO 20 ETXEBIZITZA KOSTU-PREZIOAN KOOPERATIBA-ERREGIMENEAN, garaje, trasteleku eta guztiz ekipatutako sukaldeekin.

Baxu eta atikoek terraza zabal-zabalak dituzte.

GESTIOA, INFORMAZIOA ETA SALMENTA:



Plaza Luis Mariano, S/N • IRUN (Gipuzkoa)

663 904 680

www.artalekubizigunea.com

FINANTZIAZIOA:

